

# EUSKAL GIZARTE HAUTSIA (I)

Hemen, bakoitzak bere sua zaintzen du, eta sutto eta sukaldetto asko dago. Dirudenez, oraindik ez dago pentsatzerik, denok su baten inguruan elkartzeaz. Baina okerrago dena, egurren denok baso beretik garratzen dugula ere, ahazteko zorian gaudela. Euskal gizartea gizarte hautsia da. Bifi esan izan da, individualista gara. Baina honez gero zerba it okerragorik ere esan behariko litzateke. Beharbada, denok politika egin nahitz billi arren, ez gara politikarik egiteko gauza, ez bait dugu elkar hartzeko eta elkarren lehian lan egiteko deus baliu.

Euskal gizartea, zahar eta berrian hautsita dagoela, egia bada, kritikoa batek aipatzen zidan hau, egiagoa da: hautsidarrik larriena gaitzen artekoak ditugula: Zaharren eta berrien kontuek baino ke gehiago ateratzen dute, jadanik, eskuinten eta ezkerrenek: sua ere haundiagoa da hau, nonbait. Edo egurren hezegagoa.

## BI BURRUKA

Jakingarriak iruditzen zaizkit benetan kritikoa honek gutunoz adierazi dizkidan eritziok, eta irakurleari zere hertantxe azalduko dizkiot:

Kulturak eta politikak bategin dutena garbi dago. Eta ongi dago: "Egia duk, nik ere hala uste behintzat, gaurko euskal kultura 'berria' erabat politizatuta dagoela, halabeharrez. Nik ere ez bait zioat euskal kulturari eta Euskal Herriari irtenbiderik ikusten, politikazkoa ez baldin bada. Orduan politika zuzen-zuzenean egin beharrean — ez bait duk errosa gaurko egunez — egin duguna zera duk: kultur erikintzan gutzia politizatu eta politikabide bihurtu. Eta helburu hau beharrezkoa dik gaurko kulturak".

Baina burruka doble bat burrukatzen da nahaste horren barruan: "Nire ustez, bi motatako etenak eta burrukak zeudek — beharbada oso eskema moduan esanda: alde batetik zaharrak eta gazteak, kultura mailan (...); eta, bigarrenez, gazteok, zuzen-zuzen politikan sartuta dabilztan gazteak aurrenik, eta horiekin batera eta politikatik abiatuta beti ere, besteok, ideologi eta kultur mailan, politika, kultura ta ideologia eta dena zaku berean sartuaz; hots, politikak. Eta bi malletako etenak horren mingotsak, biziak eta sakonak baldin badira, beste arrazoi nagusi bategatik duk, nire ustez: hau da, gure herriaren egoera larriagatik. Denok gaudek larritasun herren barnean murgilduta. Eta egoera hortan, edozein ideia edo joera ezberdintasun ikaragarriko problema bihurtzen zaiguk: hil edo bizitzeko problema".

(Nik neuk ez dut uste, zaharren eta berrien arteko etendura kulturala bakarrik denik: agirienean horixe agiri da, noski, besteak ez bait dago behiagertzerik. Baina barneagan hautsidura politiko bat suma daitekeela, iruditzen zait).

Eta ondorio hauetara ailegatzten da:

"Nik ez zekiat hau gizarte psikologiaren legea ote den. Baina problema psikologikoa dugula uste diat. Gure garratasun horren zergatikoa guztiok hor barnean daramagula, uste diat, gure Herriaren, geure, egoera larri honetan: hizkuntza, politika, kultura, ideologiaren egoera honetan. Hil zorrian dagoenarentzat ez zegok azalzeko problemarik, dena duk hil edo bizitzeko problema. Beste zenbait lekutan, herbestean baldin bagabiltzatek, esate baterako, bere askatasuna eta bere nortasuna bizi ziduen Herriaren batetan, politikak eta ideologiak burrukarik nabarmenek ere azken-azkenik jokuak eta jolasak ematen diate. Herriaren eta norberaren muina ez bait diate ikutzen. Horregatik erraza duk pluralista izatea".

"Gurean, berriz, eta gu bezala dauden beste herrietan, edozein kontradizio eta kontraposizio susmusz beteta zeterrek eta kontrakoen arimaren muin-muina asaldatzen dik, Herriaren eta norbera bizi ala hila erabakitzen eta epaitzen duelaokan. Beraz, geure egoerak, egoera larri honek, sortzen ziguk minbera hori, gizarte bizitzako alor guztietan: hizkuntza, nahiz ideologia, nahiz politika, nahiz ikastola, nahiz kristautasuna. Denak gure izatearen oinarriak eta zutabeak ikaran jartzen dituelak ematen bait dik. Honelako zerba it ez ahal zen gertatzen Inkisizio garaian Eliza barnean? Kristau haientzat fedea huan beren nortasunaren muin-muina eta, beraz, gizarte antolamenduenaren muin-muina ikutzen zian. Hori dardaraztea, haien nortasun osoa ta gizarte bizitza bera danbalaka jartzea huan. Horregatik orduko herreseak eramanezina. Gaur, berriz, fedea ez diagu ikusten gizarte antolamenduenaren muina bezala, eta horregatik duk hain erraza fede gautzetan pluralismoa".

"Gure herrian oso zaila diagu pluralismoa oraindik oraingoz". Beraz, gure egoeran, jakobino



izan beste erremedioirik ez zaigula gelditzen, uste du nire kritikoa. Zeharoko burruka egin beharrenez gaudela; esarahi hortan "integrista" izan beharrean kausitzen gara. Uste dut, Rikardo Arregi ere horrela moduz pentsatzen zuela. Eta azkeneko bolatan sarri entzuten da eritzi hori: demokraziarik gabeko egoera honetan "demokraziak" jokatzea demagogia omen da (ik., adibidez, ZA.537, Haranzabal).

## MUGAPEN BAT

Onartzen dut jakobinismo hori: zeren-eta "jakobino" izan beharrean dagoela, modu horretan dakiena, ez bait da jakobino; eta "integrista" izan beharrean dagoela, dakiena, ez da integrista. Jakobino eta integrista, modu horretan baldin badira.

(Baina zenbait jendeak, astiro-astiro, autokontzentzia kritikoa hori azkenerako ez ote du gaitzen?).

Egia da, eta penarik gabe mugatzen ditut neure esaldiak: ia dena erlatibatu eta gero, pluralismoa ezin absolututza genezake. Batez ere askatasuna bera eta proiektu iraultzaileak erlatibatu izanez

gero. Hain zuzen ere askatasuna eta proiektu iraultzailearen aberastasuna aseguratzea beste zentzurik ez bait du pluralismoak.


Gainera, politikak duen eta denok onartzen dugun nagusitasuna, pluralismo nasai bati kontrapesatzen dion zenbait jokabide gogorretara behartzen du gaurko. Kultural eritzi batzuk hain kritika gorrak jasotzen badituzte, politikakagatik da. Eta batzutan, zinez, kritikak berak kritikatuak baino kritikagarriago badituzte, ezinbesteko samarra dirudi honek ere: infiltzazioak direla, edo desbideratzea, edo beste edozein komerzia dela, azkenean gelinei bait dago jokoan. Ia gure esistentzia sozial eta historiko guzia politikatik zintzilik dago.

Ez dago dudarik, politikak ere pluralismoa behar dela. Baina guk politikak duguna, pluralismoa ezizik, izugarriko zatiketa ere bada. Eta hortan denok ados gara: nolakigu, ez lortzekotan batasuna behar dugula. Halar, bakoitzak bere batasun ideari eusten dio, eta beste guziei erasotzen die. Bidezko da. Horixe egingo ez balu, bere ideiak defendatzen ez dakien

txoriburu bat, izango litzateke, azkenerako batasun bat baka rrik izango bait da posible. Halar ezin bestekoa da uniformismoari itxarotenez egoteak, batasuna egiteko.

Honekin batera beste hau dago: herri-mugimendu bat sordu da, ez haiek bakarrik, baina batez ere gazteek eraginda, "hil ala bizitzo" burrukan ari den konzentziarekin. Mugimendu bat beti da zerba it oso pluriformea. Oteizaren edo Txillidaren arteak bezalaxe Marxen ideiek, edo huelga mugimendu batek bezalaxe poesiaren herriazapenak, osalzen dute eta eragiten diote (ez denek neurri berdinean, halafede!). Mugimendu horrek talde politiko berriak sortarazi ditu, burruka, politikaren maila berri bat erakitu du; baina idazle berriak edo euskal kanta berria edo "ake-larreen berbizkunda" ere ekarri ditu, bizarra modan jarri du, eta txistua baino mailteago du kitarra, etab. Mugimendua, honek denak egiten du. Hark guziak, mugimendurik horrek sortuak diren bezalaxe, mugimendua sortzen dituenak dira. Zein dabilkigu txistu edo abokoa zaletasuna zabalitzen eta zein langileria organizatzen, zein arte-eskolak sortzen eta zein harmak gainean dituela, zein lehian den euskal kultura berriaren kreaizazio eta zein industriaren gaitzaldiz kusatzen, etab. Mila gauza diferente da herri-mugimendua baten barruan: inolaz ere ez elkarrekin zerikusirik gabe, baina bai bakoitza bere aldeak. Ekintza sail eta mugimendua partzial ezberdin guztien erdiunea politika da: hori bistan dago, eta hortan denok ados gatoz. Baina burugabekeria hutsa litzateke, gauza horiek denak kausa eta ondorio kate batetan lllaran ondozkatu nahi izatea, lehenengo kausatik azkeneko ondorioaraino. (Dena den, beti "azken-fineko kausa" material famatu hura aipatzen duten metafisikoez horixe egiten jakin behar luke, beren testak zientzietan zenbait balio duen erakusteko). Hemen denak dena kausatzen eta kondizionatzen du, eta elkar-eragipen horretantxe ikusi behar da gure egoera. Gure asmoen arabera, eta horregatik gure ikusmiran, politikak duen eginkizun zentrala, nabarmena da. Alegia hori ez da beste guztia ere erdiune eta oinarri metafisikoa, nahitaezko eta betikoa, gure praktiak metodikoki eskatuta eta finkatuta baitzik. Baina gehienetan ekintza horiek politikarekin koordinatzea txit zaila da. Izan ere, erdiunea politika dela esanez, ia ezer ez da esaten. Zein politika? That is the question.

(Beste batez beretik)  
JOXE AZURMENDI



SUKALDEKO MUEBLEAK

EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.

Urutizkiña: 891754

ZALDIBIA (Guip.)